



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Zallako La Mella auzoaren ondare ezkutua ezagutzeko bisita gidatua

Abellanedan, 2013ko maiatzaren 9an

Museoen Nazinoarteko Eguna dala-ta, Enkarterrietako Museoak —Bizkaiko Batzar Nagusia da Museo hori— kultur ekimena atondu dau datorren zapatarako, maiatzaren 18rako, Zallako La Herreran dagoan La Mella auzoko intereseko zenbait leku ezagutzeko bisita gidatua hain zuzen. Ibilbidea Abellanedako Museoan bertan hasiko da eta autobusa hartu eta Enkarterrian Erdi Artotik hona izan diran jardueren barri izaten ondoen lagunduko deuskun multzo arkitektonikoetako bat bisitatuko dogu. Leku hori La Mella auzoan dago, eta bertan biltzen dira San Antonioren ermitea, Urrutia jauregia, La Mellako antxinako burdinolea, Terreros torrea eta Gaztela eta Bizkaia Erdi Aroan lotzen zituan errege bidearen aztarnak.

Kultur ibilbide hori Enkarterrietako Museoko teknikarien gidaritzapean egingo da, auzo horren ondareari eta memoriari buruz argitaratu diran argitalpen batzuen laguntzagaz; argitalpenok eskuratu egingo jakez bisitariari. Bisitaldia doanekoa da; izena emoteko aurretiaz erreserbatu behar da 94 650 44 88 telefonora deituta edo posta elektronikoz bidez (enkarterrimuseoa@bizkaia.net), plazak mugatuak diralako.

La Mella auzoak kultur aztarna garrantzitsuak gordeten ditu eta Enkarterrietako Museoak azken urteotan ahalegin berezia egin dau aztarnok betiko galdu ez daitezcan; ildo horretatik, bada, hainbat ikerketa, azterlan eta zaharbarritze lan burutu ditu, esaterako Antonio de Urrutiaren estatuaren ganean eginikoak. Ibilbidea Cadagua ibaiaren albotik doa, ekologiaren eta paisaiaren aldetik balio handiko eremuetan zehar, hondino be jatorrizko landaretza nagusi dala. Ez da denpora asko La Mellako bidea egokitu zanetik, Zalla eta Balmaseda bitarteko pasealeku moduan.

Kultur ibilbidea 10:00etan hasiko da Enkarterrietako Museoan; bertan bisitatuko dira Erregimen Zaharreko bizimoduaren eta eraketa politikoaren barri emoten daben erakusketa-areto batzuk. Hori amaitutakoan, autobusera igon eta La Mellara —Zallako La Herreran dago auzo hori— joango dira bisitariak, hango ermitea, antxinako burdinolea, Urrutia jauregia, Terreros torrea eta Erdi Aroko harbidea ikusteko. Harbide hori lotura garrantzitsua zan Gaztela eta Bizkai artean. Zati batzuetan harbide horrek bat egiten dau Castro Urdialesera joian erromatarren sasoiko harbideagaz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Visita guiada el sábado 18 para conocer el patrimonio escondido del barrio de La Mella en Zalla

Abellaneda, a 9 de mayo de 2013.

El Museo de Las Encartaciones ha preparado una nueva iniciativa cultural coincidiendo con el Día Internacional de los Museos. El próximo sábado, 18 de mayo, el centro artístico-divulgativo de las Juntas Generales ha organizado una visita guiada gratuita para conocer diversos puntos de interés del barrio de La Mella, situado en La Herrera (Zalla). El recorrido se iniciará en el propio museo de Abellaneda, para desde allí, visitar uno de los conjuntos arquitectónicos que mejor describen la actividad de Enkarterri desde la Edad Media. Se trata del complejo monumental que conforman la ermita de San Antonio, el palacio Urrutia, la antigua ferrería de La Mella, la torre de Terreros y los restos de la calzada Real que unía Castilla y Bizkaia en la Edad Media.

La ruta cultural será realizada por los propios técnicos del Museo de Las Encartaciones con el apoyo de diversas publicaciones que se han editado con temas relacionados con el patrimonio y la memoria de este barrio, que serán entregadas a los asistentes. La visita es gratuita y para apuntarse, es necesario hacer una reserva previa en el teléfono 94 650 44 88 o en el correo electrónico (enkartermuseoa@bizkaia.net), ya que las plazas son limitadas.

El pequeño barrio de La Mella guarda importantes vestigios culturales que el Museo de Las Encartaciones ha conseguido mantener a salvo del olvido durante los últimos años, gracias a las labores de estudio, investigación y restauración llevados a cabo, como la recuperación de la escultura de Antonio de Urrutia. Además, la ruta discurre junto al río Cadagua, en una zona de alto valor ecológico y paisajístico que ha conservado buena parte de su vegetación autóctona. No hace mucho el camino de La Mella fue acondicionado como ruta de ocio entre Zalla y Balmaseda.

La excursión divulgativa comenzará a las 10.30 horas en el Museo de Las Encartaciones con la visita a varias salas de su colección permanente en las que se detalla la organización política y el modo de vida de la zona durante el antiguo régimen. Un autobús trasladará después a los asistentes hasta La Mella, un pequeño núcleo poblacional situado en el barrio de La Herrera (Zalla), para conocer su ermita, la antigua ferrería, el palacio Urrutia, la torre de Terreros y la calzada medieval, importante vía de comunicación entre Castilla y Bizkaia, que en algunos tramos coincide con la antigua calzada romana que se dirigía a Castro Urdiales.